

Demetrio Loperenaren hazi bizia

Bi aste Demetrio Loperena Rota Jauna joan zitzaigunetik. Hark utzitakoa gogora ekarri nahi izan dugu, ez baita gutxi. Ingurumen alorrean aintzindaria izan da hemen eta goraiatu nahi ditugu berak eginikoak. Makina bat artikulu eta 7 liburu: *El derecho al medio ambiente adecuado* (Civitas, 1996), *Los Principios del Derecho Ambiental* (Civitas, 1998) eta *Desarrollo sostenible y globalización* (Editorial Aranzadi, 2003), besteak beste. Duela 15 urte Ingurumen Zuzenbideko Masterra abian jarri zuen eta ordutik asko izan dira handik pasatako legelariak eta hezitako abokatuak. Baina esandako guztia gutxi balitz, 1994an **Nazioarteko Ingurumen Arbitraje eta Adiskidetze Gortea** (International Court of Environmental Arbitration and Conciliation-ICEAC) sortu zuen, bulego nagusia Donostian kokatuz, eta mundu mailako ingurumen legelari eta legegizonik hoberenetarikoa bertan bilduz.

Haritzalde Naturzaleen Elkartek hegoaldeko zuhaitz-igelaren inguruko gatazka zela eta, Demetrio Loperena Idazkari Nagusia zela, ICEAC delakoaren bitartekaritza eskatu zuen Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko eta haiek uko egin ziotenean Zuzenbideko Aholku Iritzia eskatu genion. Hura nazioarteko 5 adituk sinatu zuten eta funtzezkoa gertatu zen Gurelesako urtegi zaharrean hasi berriak ziren lanak Gipuzkoako Auzitegiak geratzeko eta igeltxoari aukera bat eman ahal izateko. Gure esker onak eta gure errekonozimendua Gorteari eta Demetriori.

Ingurumenaren alde emandako guztiatengatik **MILA ESKER DEMETRIO.**

Agur eta ohore.

Haritzalde Naturzaleen Elkartetik besarkada handia bere senitartekoei eta haren lagun guztiei.

Donostian, 2013ko azaroaren 20an

Harremanetarako: 609 420 438 / naturzale@haritzalde.org

www.haritzalde.org